

BERMEO / Munitizen 'Askatasun malkoak' aurkeztuko dute gaur

Bermeon kokatuta dagoen istorioa liburutegian aurkeztuko dute, 19:00etan; protagonista bermeotarra da.

ERREDAKZIOA

Josu Munitizek (Bermeo, 1970) 'Askatasun malkoak' bere lehenengo liburuaren aurkezpena egingo du gaur arratsaldean, Joxe Miel Barandiaran Udal Liburutegian.

'Askatasun malkoak' lanean txikitatik kapitaina izateko gogoa izanik Ferrolera (Galizia, Espainia) nautika ikasketak egitera doan Antton Mendilibar Bermeoko gaztearen istorioa kontatzen du.

Bertan Karmen ezagutuko du eta maitemindu egingo dira. Hala ere, amodiozko istorio hori pentsaezinezko korapilo bihurtuko da. Maitasunaz gain, historiagaz lotuta ere badago liburua. Izan ere, Gerra Zibilaren garaian kokatuta dago.

Antton Mendilibarrek Eusko Jaurlaritzako zerbitzu sekretu baterako lan egingo du eta Matxitxakoko batailan ere izango da.